


bidegileak



Basilio Pujana (1913-2005)

Egilea:

IGOR ESTANKONA

Bete ezinezko hutsunea

«Basilio Pujana Etxeandia bertsolari eta idazle handia Eubako Orue egoitzan hil zan pasa dan zemendiaren 24an. Bertan egon dira bera eta emaztea garagarrietik. Emaztea handik gitxira joan jakon, eta osasunez sano makal egon da Basilio be hileokaz. Zulaibarrren 1913an jaio tako Zeanuriko seme honen izena letra larriz idatzita dago honez gero euskal herri-literaturan, bera halakoak izan dira eta kulturaren euskarri urte ilunenetan.»

2005eko abenduko *Begitu* aldizkariak —Arratia, Ubide eta Zeberion bana-



Basilio Pujana Etxeandia (1913-2005)

tzen denak— tonu astun hori aukeratu zuen Basilio Pujanaren hutsune arinaz hitz egiteko. Gorbeiaiko txoria Gorbeiara itzuli zen finean, luzaroan Bilbon bizi izan zen arren. Emaztea, Pilar Arnaiz, uztailaren 26an zendu zen, eta Basilio Pujana bera azaroaren 24an. Burua argi baina gorputzak erantzun ez, Pujanaren sendikoek asko sufritu zuten hain gizon bizi-zalea ohean harrapaturik bezala ikustean. Bertsolari eta idazleak ere antzeko inpotentzia sentitzen ei zuen erresidentzian zegoelarik.



Basilio Pujana eta bere emazte Pilar Arnaiz, Bilboko Campo Bolantinen, euren azken argazkian

Zeanuriko elizako ateetan jende askok agurtu zuen elkar, eta protagonistaren inguruko oroitzapen gozoak zebiltzan arratsalde hartako airean. Baita uzkurutasun antzeko bat ere, oharkabean pasatu zitzaiena gehienei, eta defuntu infinituek soilik sorraraz dezaketena. Basilio Pujana, izan ere, pertsona aberatsa zen. Hunkitu eta guzti egiten dute bere bertso sorta onenek, berezko elegantziaren adibidea direlako. Baina, era berean, maitagarria gertatzen da bere noizbehinkako dorpezia ere. Ez zuen beti berdin kantatzen, ez zuen beti berdin idazten, eta ez zen beti berdin bizi izan. Librea izan zen. Faustino Etxebarria Dimako bertsolari eta idazleari galde-tu izan diote inoiz horretaz, Pujanaren izaera bereziaz, eta besoak luzatuz erantzun izan du, Basilioaren bizitza ikaragarri zabala izan zela adieraziz bezala, besarkatu ezina inondik ere.

Guk ezagutzen dugun Basilio Pujana 1913ko otsailaren 27an jaio zen Zulaibar auzoko Ugarka-zelai baserrian. Baserri hori ez da gaur egun existitzen, erreta desagertu baitzen. Bederatzi neba-arreben artean zazpigarrena izan zen. Anaia bat bera jaio aurretik hil zen, ordea. Baserriko morroi hasi zen lanean sano gazterik, garaiko neska-mutil asko lege. Urte bete zeregin horretan jardun ondoren, harrobian hasi zen, astean 36 pezetako soldatarekin.

Kanterako lan bitarteetan herriko dantza taldean aritzen zen. 1929an Otxandion dan-

tza egin zuten Felipe Arrese Beitiari eskaini zioten omenaldi batean. Bertso zaletasuna amarengandik jaso zuen, ama bertso kantaria izakeran. Historian galtzen diren kopletatik hasi eta herrietako aktualitatea errepasatzen zuten bertso arinetaraino, Basilioaren bertso-heziketa erreferentzia ugarikoa izan zela igarri egiten da. Amak, etxean zein soloan, beharrean, bertsoak kantatzen zituen. Sutondoko lan bigunen garaian, Basilio Pujanak «gerra europeoko» istorioak eta halakoak dastatzen zituen:

Pakean arren jarri gaitzala
Jaungoikoaren graziak,
gerra gaiztoak dakartz mundura
alkar ezin ikusiak.
Alperrik dira ezin ikusi,
tratu ta irabaziak,
bertan itzita joan behar dabe
Munduan diran guztiak.



Jaiotetxea

Hamasei urterekin hasi zen erakusten erri-
ma jantzirako erraztasun hori. Xamurtasuna,
arintasuna, halako erdeinu bat lehiari eta el-
kar gailentzeari... Basilioren estiloa bestela-
koa zen, amaren ezpainen xamurtasuna eta
gogoetarako joera lehenesten zituen. Or-
duan Zeanurin zeuden bertso kantariak mi-
resten zituen, eta haien pare kantatu nahi
zuen. Bertsolari handiok ziren Bizente Etxe-
zarraga *Zidorra*, Beobideko Patxi eta Alkibar-
go Paulo Sagarna *Astronomoa*. 17 urte zituen
lehen aldiz jendaurrean bertsoan aritu ze-
nean. Zeanurin bertan izan zen, aipatutako
Paulo Sagarna eta Zidorrarekin. Zidorra
idazlea, bertsolaria, antzerkigilea eta politi-
kan saiaria izan zen, eusko gogoaren galera-
ren urgentziak bere idazlan guztietan ageri
direlarik. Basilio Pujanaren belaunaldikoen-
tzat lokarri baten antzekoa izan zen, hizkun-
tza eta herria maitatzen irakatsi ziena lehe-
nagokoen eran. Patxik eta Astronomoak
freskotasuna zer zen erakutsi zioten, oster. Baita pastoreek ere. Pako Aristiri elkarrizke-
ta batean kontatu zion zazpi urterekin An-
ton artzaina ezagutu zuela, artzaina ardiak
zaintzen egoten zela eta Basilio txikerra hari
entzuten. Berak esana da: «Anton Etxeba-
rriak, Basilio Etxebarria famatuaren aitak, be-
rak ateratako bertsoak kantetan ekiten eu-
tsan. Harenak entzunez, amari beste apur
bat, Urkiolatik ekarritako paperak irakurritz
eta abar, halantxe hasi nintzen ni».

Behin Esteban Uriarte bertsolari entzute-
tsuaren anaia —*Bertso* esaten zioten, atera

kontuak— Zeanurira hurreratu zen. Dome-
ka iluntzea zen, tabernan ari zen bertsoan.
Basilio Pujanaren anaietako batek esandako-
aren harira berotu egin zen dimoztarra. Ba-
silio gaztea bera baino hobea zela esan zion,
antza. Anaia Basilioren bila joan zen etxera,
Bertso-ren kontra bertsoan egin behar zue-
la eta, ohetik jaikiaraziz. «Heldu ginenean
gauza bero zegoen» kontatzen du Basiliok
Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak 1990eko
Bertsolari Egunaren harira ateratako libu-
ruxkan, «gaileta batzuk eta gaseosa hartu eta
hasi ginen; nik aldi hartan zer galdu gutxi
neunkan eta ez nengoen bildurrez». Bertso
txarrak bota arren oihu eta txalo egiten
zuen jendeak. Halako batean Uriartek aurre-
rago kantatutako bertso bat errepikatu
zuen. «Orduan bai sortu zen iskanbila.» Bere
aldekoek heldu eta goraka altxatu zuten
Pujana.

Zeanuriko Udala batzorde gestore baten
esku zegoen 1934an. Udal hark ez zuen bai-
menik eman Uribeko Urkisteko jaiak herrita-
rrek ohitura zuten legez ospa zitzaten. Na-
haste txiki bat eta guzti sortu zen eta guardia
zibilek gazte bat jo zuten. Bertso batzuk para-
tu zituen Pujanak gaiaren inguruan, baina
oraindik «bertsolaria ez naz ni baina» hasi zi-
tuen ahapaldiak, hamaika guztira:

Bertsolaria ez naz ni baina
bai bertsolarien laguna,
txarto nahi ondo jartzera noa
gaur entzule euskalduna.

Bilboko ur uherrak eta gerra

Hamasei-hamazazpi urte zituela Bilboko tailer batean hasi zen Basilio Pujana. «[Kantetan baino] gutxiago irabazten, baina pozik». Tornero ikasten zuen, eta gauez «Artes y Oficios»en marrazketa klaseak hartzen zituen. Badirudi orduan hasi zitzaiola odolean nahasten Zeanuri uzten ari izanaren damua eta hiri erdaldunean euskaldun izatearen zama. Fontecha eta Salazar kaleko tailer batean hasi zen lanean. Gerora tailer propioa zabaldu zuen, bazkide batzuk lagun, San

Roke kaleko 3.ean, Bilbok Ibaizabalek bustitako ortu guriak izan ohi zituen leku berean. Baina hori denboran arean aurreratzea litzateke.

Giroak eta halabeharrak asko markatu zuen Basilio Pujanaren belaunaldia. Espainiako II. Errepublikaren sasoian bertsolaritza ideien batailaren parte izan zen, eta geroago galararen hileta-kantu. Zeanuriko parroko Benito Atutxa eta bertako alkate Eleuterio Goikoetxearen gerizpean loraldia izan zuen bertsolaritzak, eta bertsolariak mezua-
ren eroale bihurtu ziren, mitinlarien euren



Bilboko etxean

parean. 1932an Arteako Batzokia zabaldu zutenean kantatzera gonbidatu zuten Pujana. Bertan ziren Luis Arana buruzagi jeltzalea eta O'Grady politikoa irlandar errepublikarra. Sasoi berean —1934an— ireki zituen ateak Basilioren herriko batzokiak ere, eta Jose Maria Artetxerekin batera atera zen kantuan. 1935ean Dimako Esteban Uriarte eta Basarri izan zituen lagun, Zeanuriko sei abadek meza berria eman zutenean.

21 urterekin soldaduska egitera joan zen Aragoina, Zaragozara, Pontoneroen batailoira. Gerra piztu zen soldaduskatik etxeratu eta lau hilabetera, Pujanatarren ama hil eta hirugarren egunean. 36ko gerran Ibaizabal batailoiko gudari izan zen. Pujana da «Eusko Gudariak» ereserkiaren hitzen egileetako bat, Jose Maria Garate eta Alejandro Lizasorekin batera. Joseba Tapiaren *Agur Intxorta maite, 1936-37 gudako kantuak* diskoan (Gaztelupeko Hotsak, 2001) dago entzungai bertsio osoa:

Eusko gudariak gera
Euskadi askatzeko,
gerturik daukagu odola
bere alde emateko

Irrintzi bat entzun da
goiko tontorrean
goazen gudari danok
ikurriñan atzean

Fasizistak datoz eta
Euskadira sartzen,
goazen gudari danok
geure aberria zaintzen

Gure aberri laztanak
dei egin dausku-ta
goazen gudari danok
izkilluak hartuta

Arratien borroka
izan da intxortan,
Mola ta erreketek
gelditu dira bertan

Ikurriña goi-goian
daukagu zabalik,
ez da inor munduan
eratsiko dabenik

Nai-ta etorri Mola
ta mila rekete.
ez da inor sartuko
bizirik garen arte

Agur Intxorta maite
gomutagarria,
Arratiako mutillen
Garaitzaren tokia

Ez da sartuko inor
ez Euskal Errian
eusko gudariren bat
zutik dagon artian.

Gerraren haustura

Preso egon zen gerra ostean Basilio Pujana (Santoña, Santander, Cadiz) eta zigor-lanetara kondenatu zuten. Beste hiru anaiak oraindik kartzelan zirela, gerra amaitu eta urte betera etxeratu zen. Bizipen gogor horiek zeanuriztarren ahotsa loditu zuten, eta Frankismoaren gau luzeari eusteko adoretu zen, ahanzturaren kontra kantatuz eta idatziz aukera zuen bakoitzean. Anaia Raimundoren Kolonbiako erbesteak, esate baterako, marka sakona utzi zion bertsolariari.

1944an ezkondu zen Pilar Arnaizekin, lau seme-alabaren guraso izango zi-



Araba Bizkaia Txapelketa 1987. Lekeitioko saioa. Jose Mari Aranbarri, J. Arrizabalaga, Juanjo Respaldiza, Liborio Urrutia, Basilio Pujana, Pedro Bizkarguenaga, Josu Arriola, X. Laka

ren. Bestalde, bertso giroan jarraitu zuen Pujanak. Esate baterako, Txirritari eskainitako omenaldian kantatu zuen 1962an. 1959, 1960, 1962, 1964 eta 1987an hartu zuen parte Bizkaiko Txapelketan, eta 1959, 1960 eta 1964ko edizioetan finalera iritsi zen. Arratiako bertsolari txapelketa irabazi zuen 62an eta 64an, eta baita Zeanurin egindako 1959ko txapelketa ere. Kepa Intxausti eta Basilio Pujana dira, honenbestez, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa bateko finalera inoiz heldu diren arratiar bakarrak.



Bizkaiko Txapelketako finala. Ostean txapelarekin ageri da Pujana (1959-09-06)

Bertso-paper sariketetara aurkeztu zituen hainbat bertso-sorta, baina ez zuen suerte handirik izan. Berak kontatua da, ordea, Donostiako Aurrezki Kutxak antolaturiko lehiaketa batean hartu zuela parte, 1963an izan zela dirudi, eta laugarren saria irabazi. «Beste hirurak giputzak ziren. Ni harro, bizkaitar saritu bakarra neu izan nintzela eta.»

1959ko uztailaren 6rako Arratiako kanporaketa jokatzeko prestakizunak gertu daude, Alfonso Irigoienek Zaratomoko Jose Antonio Uriarteri idatzitako gutunean irakur daitekeenez:

Jaun hori:

Berba bi baino ez, esateko Zeanurin egingo dan bertsolarien txapelketea agustua-ren 16an barik 15ean izango dala, arratsaldeko bostetan. Bertan txapeldun urtetan dauenak Bilbora joan hala izango dau, agustuaren 30ean, eta Bizkaiko beste alderdi batzuetan txapeldun gelditu direanakaz jokatu.

Irigoienek darabilen zerrenda luzea da, baina hiru aurkezten dira: Basilio Pujana eta Jose Maria Artetxe zeanuriztarrek eta Ramon Yurrebaso igorreztarra. Andra Marietan Zeanu-

rin jokaturako kanporaketan sailkatu zen beraz Pujana sariketaren finalerako. Caja de Ahorrosak emandako mila pezetako saria eroan zuen, eta Udalaren garaikurra. Plazara bildutako jende kopuruak agerian utzi zuen beste behin Arratia inguruko bertsozaletasun ondo errotua.

1959ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketa gogoan iltzaturik geratu zitzaion, beste hainbati legez. Bilboko Areatzara hurreratu zen jendetza alferrik joan zen, Bilboko Udaleko agintariek bozgorailuak kentzeko agindua eman zuten eta. Astebete beranduago ospatu zen, antolatzaile zereginetan zebilen Euskaltzaindiak «baimen guztiak» lortu ostean. Bizkaiko Lehen Bertsolari Txapelketako irabazle Balendin Enbeitarekin batera Durangaldeko, Txorierriko, Busturialdeko, Lea-Artibaiko eta Arratiako kanporaketetako txapeldunak (Jose Alberdi, Juan Ormaetxe, Deunoro Sardui, Jon Azpillaga eta Basilio Pujana hurrenez hurren) aritu ziren.

Xabier Amurizak *Bizkaiko Bertsogintza IV. XX. mendea* obrara dakarren moduan, «zarata handirik egin barik» ibiltzeko garaiak suertatu zitzaizkien Pujanari eta bere belau-naldikoei. «Buruan pentsamendu asko nerabilen, baina isilik egon behar. Euskaraz, ba, Arestigaz lantzean behin, Irigoienegaz... honegaz bertsotan be egiten neban», dio Pujanak, eta gaineratu: «Nik sarri kantetan neban ze, bertsolariarena, berak dinona baino gehiago, esan gura ebana zela, eta entzuleak ulertu behar dauela». Elipsian oinarritutako



1960ko Bizkaiko Txapelketako parte hartzaileak eta antolatzaileak saio osteko bazkarian. Irigoien, Mugartegi, Oleaga, Ibarzabal... Eskuman zutik ageri da Pujana

derrigortutako estilo honen adibide da Pujanaren agurra Bilboko Areatzara bildutakoei. Imagina dezakegu, formalismoak gora behe-ra, garai ilunotan hitzok entzuteak, eta are kantatzeak, sortu bide zuen zirrara sakona:

Gure artian sarri izan dira
saminak eta ilunak
zorionean poz apurtxo bat
badeusku gaurko egunak.
Ume txikia poztuten dunez
amaren berba bigunak
zuen bihotzak poztu daizala
guk hemen esango'gunak
ondo etorriak izan zaiteze
orain hemen zagozenak
epaikariak, obispo jaun ta
bai beste entzule danak
agur gozo ta besarkada bat
opa deusue Pujanak
ta Jaungoikoak gorde zaizela
bihotzeko euskaldunak.

1960ko Bizkaiko finalera artez sartu zen Pujana, Arratiako txapelketa jokatu barik. Bilboke zezen-plazako finalean izan zen beraz. 1964ko Ondarroako final gogoangarrian, ostera, Pujanaren belaunaldia gazteen indar bertetuekin atera zen oholtzara. Hauxe zen abuztuaren 17 hartako kartela: Abel Muniategi, Jose Mari Arregi, Basilio Pujana, Deunoro Sardui —Muxikarra bihotzez maite izan zuen bizi osoan Basiliok—, Ireneo Ajuria, Juan Murgategi, Juan Azpillaga eta Jon Lopategi. Final horretarako txartela lortzeko Gurtubai eta Pujana nor baino nor aritu ziren Igorren. Gai jartzaileak puntua jarrita tentatu gura izan zi-

tuen. Gurtubairi honakoa jarri zioten: «Estimaziorikan/ ez da diru gabe». Lemoaztarrak honela bukatu zuen bertsoa: «Bape bakua baino/ askozagaz hobe./ Gizona daguana/ mundu hontan pobre/ ez da izan egiten/ buruaren jabe». Pujanari honakoa jarri zion: «Aberatsen lujoa/ pobreen nekea». Eta honela borobildu zuen bertsoa: «Baina gehiago da beti/ pobreen bakea». Anekdotak hutsa da baina balio du, zelanbait, ilustratzeko Pujanaren alaba Pilik kontatutakoa, aitaren ardura handietako bat zela burua lar ez nabarmentzearena. Zeanuriztar soiltzat har zezaten nahi zuen Pujanak, eta ez bilboztartzat, hitzaren zentzu klasikoenean.



Leizaola eta Zubirirekin. Eusko Alkartasunan egon zen Pujana

Gerra ostean preso zegoela tailer batean egin arazten zieten lan. Asko ikasi ei zuen Pujanak horrela. Basilio Pujana negozio gizon txiki baina lehiatia izan zen. Bazkideekin zabaldu zuen lehen tailerra «La Aneja» izan zen, sartengintzakoa. Negozioak dibisio bi izan zituen gerogarrenean. Bata «Egosi» zen, presio eltzeena, eta bestea «Poligor», pintura eta kolena. «Poli»k esan gura zuen, grekeratik, anitz. Eta «gor» zen, noski, Gorbeia: Pujanaren Gorbeia urruna. Bertsolariak, Zeanurin zenean, ez zuen nahi hiriburutik etorritakoa bezala agertu. Izan nahi zuen beste


arratiar bat arratiarren artean, horixe baino ez. Eta izaerari eutsi nahi izan zion Bilboko alderdi urbanizatuenean ere. Profetak ezin bazuen mendira joan, mendia ekarriko zuen bere ondora. 2002ko udazkeneko *Bertsolari* aldizkarian datozen argazki batzuetan Salveko zubiaren beso metalikoak ostean dituelarik ageri da Basilio Pujana. Bilboko atiko hartan ortua eta guzti zeukan.



1960. urte ingurua. Kantuan Basilio Pujana, aldamenen Alfonso Irigoien



Bilboko etxeko atikoan ortu ederra zeukan Basilio Pujanak



Basilio Pujanaren letrarekin, gutuna



Pazko eguna zoriontzeko Pujanak egindako eskuorria.
Ez zizkion edozeini bidaltzen halakoak



Basilio Pujana, mikrofona eskuan



Pujana, Zeanurin, Deunoro eta Jesus Mari Sarduirekin

Gaurkoari kantatuz

dazten dudana idazten dut geure aldiari buruz, gaurkoari kantatzen diot nik, gaur jazotzen diren gauzei.» Hala zioen Basilio Pujanak. Bizkaiko bertsolaritzaren oinordekotza iritsi zenean, bertso idatzira erretiratu zen. Lopategi, Azpíllaga, Enbeitatar gazteak, Amuriza... horiek jubilatu zituzten Pujana eta bere garaikoak plazarik plazako lanetik. Pujanak, era horretan, bertso jarrietan egin zuen bere ekarpen nagusia.

Bere lana, gehienbat bertsoa, *Zeruko Argia*, *Príncipe de Viana*, *Zer*, *Egin*, *Anaitasuna* eta *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkarietan argitaratu zen. Eta baita *Egi batzuek aixetaratzen* (Auspoa Liburutegia, Tolosa, 1986), *Deabruak ostutako*



Basilio Pujana eta Joxe Lizaso, Deustun

urteak (Auspoa Liburutegia, Tolosa, 1991) eta *Oiuak* (Sendoa Argitaldaria, Oiartzun, 1997) liburuetan, Auspoa bildumaren 191, 211 eta 251 zenbakiak egiten dituztenak. Aita Zabala etorri ei zitzaion hastapeneko liburua proposatuz. Basilio Pujanak ez zuen ezagutu ere egiten. Antonio Zabalak esan zion: «Nik hemen daukadan beste hainbeste bertso badaukazu liburu bat egingo dugu». «Zenbat daukazu ba?». «Ehun bat edo». Harriturik ge-

ratu zen zeanuriztarra han-hemenka barreiaturiko hainbat bertso bildurik zeuzkala ikusita.


Egi batzuek aixetaratzen liburuan gai desberdinei eskaintzen dizkie bertsoak: umezaroa, gerra garaia, ikuspuntu politiko zenbait, gai erlijiosoa... Bertso dotorez jositako lana da. Bertatik ateratako bi ahapaldiotan igartzen da Basilioaren kalitate amaigabea eta irudiak sortzeko erraztasuna:



Egi batzuek aixetaratzen, Auspoa saila, 1986

Erderaz giñan eskolan eta
elizan barriz latinez,
aldi aretan beterik giñan
era ortako mitinez.
Lezio danak buruz ikasi,
zer esan nai dun jakin ez,
askoz obeto egin bagendun
asto handi bat buztinez.

Nire lelengo jolas-leku zan
Zulai ibarreko landa,
ta mendizale ein nintzanean
Gorbaie eta Lekanda.
Gero gerra ta iskimiliak
eroan nindun enbanda,
baiña erria eneban aitzu
barruan euki neban-da.



Deabruak ostutako urteak liburua azala



*Deabruak ostutako urteak, beste biak ez beza-
la, hitz lauz idatzi zuen Basiliok. Bertan gerra
garaiko kontuak dakartza gogora, bere bizi-
penak eta bere gogoetak:*

Gure gerra nagusi ortan ibili giñanok eta bizi
gareanok, ezjakitunak, edo bildurtiak, edo
epelak, edo zer gara? Gerra igaro ta ostean
bizi eta geroago il ziranak, eta oraindik bizi
gareanok, geuk igarotakoak idatzi edo argi-
taratuteko gauza ez gareanok, zer gara?
Geure historia idazteko beste ez al gara? Eta
zergatik?

Alan sinistu ez egiteko bada be, nik, ezja-
kin onek, liburutxu bat osotu gura neuke,
naita oso txiroa eta txikia izan. Argitaratu
gura dodaz nire bizitzako istoria eta mun-
du onetan gerra denporan egindako ibil-
kerak.

*Oiuk bere azken liburuan bertso idatzi be-
randuenekoak argitaratu zituen. Laurogeita
lau urte zituen argitaratu ziotenean. Bertso
sendo-borobilez osotutako liburua iritzi zion
Eñaut Intxaurragak Arratiako idazle aitzinda-
rien antologia liburuan (Zertu Kultur Elkar-*

tea, Artea, 2005). Eta Arantzak izeneko bertso hauek aukeratu zituen, beste batzuekin batera, horren erakusgarri:

Sarri askotan aurkitua naiz
egi on au esan nairik,
ta oraingoan ezin naiz egon
egi on au esan barik
egi andi ta garbia da ta
iñon badago egirik
Esaera da ez dagoala
lorarik arantza barik
baina, kristauak, gure arantzak
iñoz ez dauka lorarik.



Oiuak liburuaren azala

Zelan arraio egongo gara
Españakin alkartuta,
españatarrak gu euskaldunok
armaren puntan gaituz ta?
Aldi bat arte euki genduzan
eskubideak kenduta,
gizonak ditun eskubide ta
errazoiak zapalduta
baiña alan be guk ez daukagu
itxaropena galduta.

Iparragirrek bein kantau eban
ia emonez negarrai,
ikusirikan menpe zirala
gure mendi eta zelai.
Ipar alde ta ego aldeko
anaiok, asabai jarrai,
olan alperrik jarriko dauskuz
orko muga eta ibai
ezin legikez banandu eta
odolez diranak anai.

Gizonak ezin agindu dau ta
bere eskubideetan,
kanpotarra da geuri agintzen
geure erri ontan bertan.
Eun ta berrogei ta amar urte
gabiltza burruka ortan
eta gaur bere anai-arrebak
erbeste ta kartzeletan,
obe burruka garbi baten il
horrela izatekotan.




J. Alberdi eta B. Pujana




B. Pujana, Zeanurin kantari



Zeanuriko omenaldian, Balentin Enbeitarekin bazkal ostean bertsotan



Auspoaren auspoa aurkezpena K.M.n., 1996



Bertsolari Elkarteak 1990eko Bertsolari Egunaren kariatara liburuxka argitaratu zuen



J. Alberdi eta Basilio Pujanari omenaldia, 1990



2004an, Dimako Lamindao auzuneko Axpe goikoan. Arratiako eragileek hainbat pertsonaren ibilbidea nabarmendu gura izan zuten. Tartean zen Basilio

Herriaren omenaldi sentitua

Zeanuriko herriak omenaldia egin zion 1986ko urriaren 26an. Plazan eraiki zuen etxean ei zeuzkan Basiliok tresna guztiak, gairakurrak... «Zer onak eta txarrak, denak hantxe dagoz». Bere sentimendu guztien uriburu zen Zeanurik, bada, omendu egin gura izan zuen. Pujana jaio zen Zulaibar auzoko frontoian izan zen hitzordua.

Bertsolari, bertsozale eta lagun ugari bildu zen bertara. Jose Lizasok, Gorrotxategik, Egañak, Amurizak, Lopategik, Jon Enbeitak, Azpillagak, Irene Ajuriak... hartu zuten parte. Basilio Pujanak bereziki eskertu zuen Balentin Enbeitaren presentzia, «bertsolari guztien aita» zenarena.

1990eko abenduan Donostian egin zen Bertso Egunean ere bertsolari eta bertsozaleen esker ona jaso zuen. Urte hartan Jose Alberdi eta biak izan ziren omenduak.



Zeanurin egindako omenaldian, Faustino Etxebarriaren bostekoa jasotzen



Lamindaako omenaldiaren une bat

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Mari Pili Pujanari
- Angel Larreari
- Iñaki Esparzari
- Juan Luis Zabalar
- Xenpelar Dokumentazio Zentroari
- Sendoa Argitaldariari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2007ko ekaina

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 978-84-457-2571-9 (Lan osoarena)
978-84-457-2575-7

L.G.: BI -

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística